

## 7. BAZKIDE GARRANTZITSUENA



Gure dendak biltegi bat du, eta bertan, makinak erabiliz arropak sortzen ditugu. Ez ditugu langilerik, beraz, hiru jabeak gara arropak diseinatzen, sortzen eta bezeroak zerbitzatzen dugunak.

Saltzen dugun makillajea, aurretik gure hornitzaileari erosten diegu. Gure hornitzailea oso garrantzitsua da guretzat, bera gabe ezingo genukeelako makillajea saldu, arropa bakarrik. Horregatik, gure hornitzailearekiko leialtasuna dugu.

Momentuz ez ditugu bazkiderik, gure kabuz lan egiten dugu. Hala ere, agian geroago, gure negozioa gehiago hazterakoan, bazkideak izango ditugu.

Lankidetzaren estrategikoaren aldetik, akordio bat izango dugu makillajea ekoizten duen enpresa batekin. Enpresa honek makillajea eskainiko digu guk haiei publizitatea egitearen truke. Beste akordio bat izango dugu arropa ekoizteko oihalak egiten dituen enpresa batekin, beraiek oihala emango digute guk haiekin soilik kolaboratzearen eta kreditu jakin batzuk ematearen truke.